

3. MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure produktua mugikorra asko erabiltzen duten gazteentzat (16-30 arteko adinekoak) zuzenduta dago nagusiki, baina negozio pertsonak ere erabili dezakete, aparatu teknologik erabilera handia dutelako. Familiek ere probetxua atera dezakete, independentzia adibidez, familia osoa bidaiatzera doanean eta mugikor guztiak edo beste gailu batzuk kargatzeko aukerarik edo denborarik ez dutenean, kargagailu eramangarri hauek ezinhobeak dira.

Gure produktuaren diseinua intuitiboa izango da pertsona guztiak erabili ahal dezaten, ez du axola gazteak edo adineko pertsonak diren. Botoi bat sakatzuz zamagailua pizten edo itzaltzen da eta nahi duzun gailu elektronikoa karga daiteke. Kargagailuak lau buruko kablea du, eta bi karga-ataka desberdineko bi gailu desberdin gehienez kargatzeko aukera ematen du.

